AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

ELIKADURA, LANDA GARAPEN, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

3643

AGINDUA, 2025eko uztailaren 23koa, Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, Mikel Gotzon Lete Txintxurreta jauna Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko behin-behineko lanpostutik kentzea xedatzen duena.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 28.2 artikuluan eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 30.6 artikuluan ezarritako aurreikuspenak aplikatuz, ondoren zehazten den kargu-uztea sinatzen dut. Beraz,

XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Mikel Gotzon Lete Txintxurreta jauna Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Arrantzako aholkulariaren kargutik (5262 kodea, 1 dotazioa) kentzea, zuzendari-mailan, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Kargu-uzteak 2025eko abuztuaren 1ean izango ditu eraginak.

Hirugarrena.– Administrazio-bidea amaitzen duen agindu honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke organo honi, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, bi kasuetan agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 23a.

Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
AMAYA BARREDO MARTÍN.